

JINER PROIEKTUA (KANALAK)

Banaketa-kanal bat enpresa batek aukeratutako bideen multzoa da, produktu bat sortzen denetik azken kontsumitzailearengana iristen den arte igarotzen dena.

Gure produktua bezeroei helaraziko diegu zenbait garraio elementuen bidez; izan ere, orgak supermerkatuek soilik erosiko dituzte eta kamioien bidez eramango dizkiegu. Horretaz aparte, aipatu beharra dago ez dugula webgune bat izateko beharra gure erosleekin kontaktuan zuzenean jarriko garelako.

Fabrikatutako orga hauek produktu bat dira supermerkatuentzat, baina zerbitzu bat erosleentzat. Hau honela izanda, gure produktua ez da salduko denda fisiko batean ezta webgune batean ere nahiz eta webgune bat sortuko dugun gure proiektua jendea ezagun dezan. Hala ere, erabaki hau hasierako erabaki bat da, enpresarekin hasi berriak garelako; denborarekin salmentak ondo joatekotan, webgunean bertan ere salduko genituzke orgak.

Emandako informazio guztia kontuan izanda, modu honetan banatuko ditugu gure orgak: hasieran supermerkatuetara hurbilduko gara bertako nagusiei gure proiektua azaltzeko; ondoren, ideia gustatzen bazaie orgen kopuruei buruz eta kostuari buruz hitz egingo genieke; jarraian, gure biltegiara hurbiltzeko proposamena egingo genieke orgak ikusteko; amaitzeko, akordio batera heltzekotan garraio elementu baten bidez helarazio genieke eskatutako orgak.

